

## Aitzin Solasa

Joxe Austin Arrieta

Zeinen urrun, zeinen arraro, zeinen «modatik at». Baina aldi berean zeinen gertuko, eder, ausart. Jose Luis Alvarez Enparantzaren hitzok, pornografiaren aurka, 1974an idatziok (ikus «Gertakarien lekuko»-I.Alea, 152. orr.):

*«Erotismoa, obratu aurreko amodio-giro berezia, maitasun hozitu berriaren Eros-aldia, baita barne-hutsune soila denean ere, baita olerki-egarri zorrotzaren pizgari bakarra denean ere, baita ez-aren edo ezin-aren dei etsia denean ere, baita egiazko maitasun osotua ez denean ere, Olerki da, eta Edermen, eta Arte-gun, eta gizonaren barne-aberasgarriak gardena eta zinezkoena. Sendimenduan eta olerkian funtsatutako harremanen askatasunaren alde, berriro ere Marcuserekin batera, esango nukeen guzti-guztia, sendimendutik eta olerkitik at oratutako tximukeria horien aurka esango nuke zinki. Eta tximuek barka nazatela...»*

Irakurri bai, irakurriko nuen seguru asko, argitaratu zenean, Maisu Handiaren artikuluak eta liburuak oro irrikaz irakurtzen baintuen. Jaramonik ez, ordea. «Horrelako gauzetan» ezikusiarena, ezentzunarena egitea hobe, aizu: azken finean, «beste belaunaldi batekoa» da Txillardegi, sexu-errepresioaren arketipoak mintzo dira haren ahotik, barneegi errotuak ditugu denok ere, eta berak areago - zaharragoa baita-, erlijio katolikoaren puritanismoak txertatu dizkigun sexuaren -hots, bekatuaren-itzalak, desakraliza ditzagun apur bat amodio-kontuak, jolas bat da, aizu, azken finean, zer du txarrik Parisko Azken Tangoak, zer du txarrik Zintzur Sakonak...«Marcuse?»...Zer dela-eta aipatzen zenigun

Marcuse, Maisu? Zer txantxa-mota dialektikoa zen hori, Txillardegi jauna?...Ez. Ez zen txantxa. Hain zuzen ere, gure belaunaldikoen kultuko totem intelektual nagusiaren ize-nean inarrostean zuten gure modakeria, gure moldakeria. Guk, ordea, edo nik behintzat, jaramonik ez.

*«Zinema pornoa, gizonaren sakontasunaren uko zabarra eta zozoa den aldetik, gaurko gizartearen txirogarri nabarmen iruditzen zait. Eta gizasemearen, emakumearen eta maitasunaren beraren txirogarria den aldetik nahi nuke berriro ere eta osoki lerro hauen bitartez gaitzetsi.»*

*«Goetheren «Werther» eta Hamsum-en «Pan» liburu zoragarrien irakurle liluratua izan naizen hau, zinema porno horrek nardatu egiten nau, jaunak. Benetan. Zu ez ala?» (ibidem, 152.orr.)*

Bai, konforme, Jose Luis. Zuzen-zuzenean itura jotzen duzu, pur sang bat izan zara beti. Zuri ezin zaizu inoiz itzulinguru erretorikoz erantzun. Esango nizuke, adibidez, ez dela ideologikoki batere korrektoa «gizona» aipatzea «gizaki»ren ordean, etimologikoki berdintsu izan arren; baina 2012an diotsut hau, jakina, 1974an baino errazagoa da, noski... Esango nizuke, esate baterako, aholku zoragarria izan zela Koldo Mitxelenarena, Hamsum-en «Pan» hori euskaratzeko asmoa burutik kendu zizuneko, eta ez autore norvegiar hura filo-nazia omen zelako (zuk dena irakurtzen zenuen, nik ez, aldean aurretik pedigree politikoari erreparatuz errazten diot hautabeharra neure irakurle-alferkeriari), baizik eta, itzulpen hari lotu bazintzaizkio, beharbada ez genukeelako gaur egun «Leturia»rik izango geure letra apalen apalik urrezkoenean. Baina ados, Maisu. Erantzungo dizut, zirt ala zart. Ni ere nardatu izan nau. Beti, edo ia beti. Jakin ez, ordea, zergatik. Nire

hezkuntza puritanoarengatik? Ez, baldinbaitere. Nahiago nuke hala ez balitz behintzat. Arrazoi zenuela uste dut. Barka gaitzate! tximuek, bai. Haien bezain natural bagina sikiera...